

KIKE AMONARRIZ GORRIA

EUSKARALDIA. GEHIAGO. GEHIAGOREKIN. GEHIAGOTAN

Azaroaren 20an, Donostiako San Telmo museoan aurkeztu genuen Euskaraldia Euskal Herriko hiru administrazioetako ordezkari gorenek, Euskaltzaleen Topaguneak eta euskalgintzako ordezkari ugari.

Lehen Euskaraldiak erakutsitakoak aintzat harturik, urrats berri bat ematera goaz elkarlanean, berriro ere, Euskal Herriko erakundeak, euskalgintza eta era guztietako eragile sozialak. Baina, atzeak erakusten duenez aurrea nola dantzatu, eman diezaiozun begiratu bat lehen Euskaraldiak utzi zigunari.

LEHEN EUSKARALDIAREN EZAUGARRIAK

Nabarmendu beharko genukeen lehen aspektua da lehen Euskaraldiak sekulako

berrikuntza suposatu zuela. Berrikuntza horrek sekulako ilusioa eragin zuen bai euskalgintzan, bai erakundeetan eta baita euskaltzale eta herritar arruntengan ere. Aintzat hartu behar dugu Euskaraldia ez dela euskararen aldeko kanpaina bat izan, hizkuntza ohituretan eta erabileran eragiteko ariketa bat baizik. Izan ere, erabileraren inguruan halako ariketa sozial erraldoi bat planteatu den lehen aldia izan da. Euskaraldiaren aurrekariak erreferentzia garrantzitsua izan ziren, noski (Bilbon, Lutxo Egiak 2015ean hilabete batez euskaraz bizitzeko egindako performancea, Donostiako Egian Euskaraz Bizi Nahi Dugulako egitasmo aitzindaria, Agurain, Hernani... eta, bereziki, Lasarte-Orian 40 egunez antolatuta zuten "Irten armairutik" egitasmoa, *Ahobizi* eta *Belarriprest* rola plazaratu zituena), baina Euskaraldiak beste dimentsio kualitatibo eta kuantitatiboak lortu zituen. Ez dut uste, Europa osoan,

horrelako ekimenik inoiz gauzatu duen beste hizkuntza gutxiturik dagoenik.

Lehen aldaketa egitasmoaren izaera bera izan da; ez zen kanpaina edo ekintza ikusgarri bat planteatu, ariketa sozial bat baizik: herritarren hizkuntza ohiturak ziren aldagaia eta helburua. Gizarte-aktibazioa zen ariketaren funtsa eta ikusi zen bezala, herritarrak eta euskaltzaleak horrelako ariketa batean inplikatzeko gogoazuten. Aurrez aipaturiko esperientzietan nabaria zen aldarte hori Euskal Herri osora eramateak euskaltzaleak aktibatu egin ditu.

Halaber, nabarmentzekoa da Euskaraldia Euskal Herri osoan gauzatu dela eta euskararen geografia osoa ikusarazi duela, modu orekatuan. Korrikaz aparte, oso egitasmo gutxitan ikusi dugu Euskal Herria horren modu agerikoan. Hizkuntza komunitate osoan zehar hedatu da ariketa.

Elkarlana Euskaraldiaren funtsezko beste ezaugarrietakoa izan da. Elkarlana modu praktikoan gauzatzeko eta zer nolako onurak dituen ikusi ahal izateko aukera izan dugu: herri-erakundeek, euskalgintzaren eta gizarte-eragileen arteko elkarlana, herri-administrazio desberdinen artekoa eta baita euskalgintzako eta gizarte eragileon artekoa ere.

LEHEN EUSKARALDIAREN EMAITZAK

Horrelako ekimenak baloratzerakoan, ohikoa da ezeren gainetik kopuruetera begiratzea. Eta lehen Euskaraldia, kopuruei dagokienez, aurreikuspenik baikorrenak gainditu bazituen ere, Topagunetik eta beste antolatzaile guztien aldetik, aspektu kuantitatiboak baino, kualitatiboak nabarmendu nahi izan ditugu.

Izan ere, Euskaraldiak, metodologia berria proposatu baitu. Esan genezake "formatu" eraginkor berri bat eraiki dela eta helburu kualitatibo hauek lortu direla: herritarren, erakundeek eta era guztietako eragileek aktibazioa eta elkarlana, ulermenaren garrantzia eta ahalmena erdigunera eramatea, hizkuntzaren inguruko diskurtso eta praktika berritzaileak gizarteratzea eta euskararen gaiari buruzko hausnarketa soziala piztea.

Aspektu hauetan ere, asko dugu hobetzeko, baina lehen edizioak abiapuntu sendoa utzi du, hurrengoetan aurrerapauso kuantitatibo eta kualitatiboak emateko.

Eta kopuruei dagokienez, azpimarratuko nuke, espero ez genituen markak lortu zirela lehen Euskaraldian. Datuek eta balorazio kuantitatiboek oso sententzia ona utzi dute:

- 405 herritan egin zen Euskaraldia, Euskal Herriko 7 lurraldeetan.
- Guztira 225.000 lagun baino gehiagok eman zuen izena (96.500 Gipuzkoan, 80.000 Bizkaian, 22.300 Nafarroa Garaian, 20.200 Araban, 4.300 Lapurdin, 1.300 Behe Nafarroan eta 250 Zuberoan).
- 164.000 ahobizik (%73) eta 61.000 belarriprestek (%27) hartu zuen parte.

Zenbakien berri zehatzago nahi duenak Euskaraldiaren web gunean aurki ditzake, Gaiendegiarekin osatutako datuen mapan, herrialdeka nahiz udalerrika.

EUSKARALDIAREN ERAGINA

Euskaraldiak izandako eragina modu kuantitatiboan eta kualitatiboan aztertu ditu Soziolinguistika Klusterrak Eusko Jaurlaritzaren enkarguz egindako ikerketan. Ateratako ondorio nagusien artean honako hauek nabarmendu genituzke:

- Euskaraldia gai izan da hainbat harremanetan hizkuntza jokaera berriak finkatzeko. Iraun duen egunetan 20 puntutan igo da partaideek euskara ulertzen dutenei euskaraz hitz egiteko joera. Hiru hilabeteren ondoren % 5,6 igo da abiapuntuko datuarekiko, hazkunderik handiena hizkuntza gutxien erabiltzen zutenen artean lortu delarik.
- Euskaraldiak bereziki aktibatu du belarripresten erabilera.
- Euskaraldiak bereziki eragin du partaideen pertzepzioetan:

- Norberaren hizkuntza portaeren kontzientzia errealagoa lortu da: gehienak ohartu dira uste zutena baino gutxiago erabiltzen dutela.
 - Inguruan euskara ulertzeko gai den jendea bisualizatzeko balio izan du. Herritar gehienek aipatu dute, uste zutena baino jende gehiagok ulertzen duela euskara.
 - Hizkuntza aldaketarako aukerak ikusi eta gauzatu dira, eta oztopo errealak ere sentitu egin dira.
- Lorpen horietan asko lagundu du partaideek beren burua babestuta sentitzeak, eta egitasmoak izan duen estaldura komunikatiboak. Giro babestua eskertu da eta hizkuntza ohiturak aldatzeko babesa sentitu da. Taldetasuna eta konplizitatea maiz nabarmendu dira, herritarrak ariketa konpartitu baten partaide sentitu direlarik.

Horiek horrela, garrantzi handia ematen diogu Euskaraldiak partaide bakoitzarengan izandako eraginari. Etorkizunera begirako ahalduzko inbertsio ikaragarria egin dela iruditzen zaigu.

Hutsuneak ere izan ditu Euskaraldiak, noski. Horien artean, hauek nabarmenduko genituzke:

- Mezua eta ariketa euskal komunitatera oso zuzendua egon da eta euskaratik urrunago daudenengana ez da behar bezala heldu.
- Gizonezkoen partaidetza txikia izan da: hirutik bat.
- *Ahobizi* eta *Belarriprest* rola askotan ez dira behar bezala ulertu, eta ez dira lotu hizkuntza praktikekin, ezagutza-mailarekin baizik.
- Lehen edizioan entitateei sustapena soilik eskatu zaie, eta hainbat partaidek hauen engaiamendu edo inplikazio falta nabarmendu du. Nolanahi ere, horrela irudikatu zen hasieratik, ariketa progresibo modura eta bigarrenerako aurreikusitako entitateen neurriena.

BIGARREN EDIZIOARI BEGIRA

Bigarren edizioan, *Ahobizi* eta *Belarriprest* rola mantendu egingo dira eta herritarrak beren hizkuntza ohiturak aldatzera animatzen jarraituko dugu, gehiagora iristen ahaleginduko garelarik. Egun gehiago ere iraungo du: 15 egun, azaroaren 20tik abenduaren 4ra.

Berrikuntzarik nagusia, ordea, norbana-koak jorratzeaz gain, Euskaraldia entitateetara ere zabalduko dela izango da. Entitateetat jotzen dira era guztietako talde antolatutako: erakundeak, enpresak, elkarteak, establezimenduak, etab. Euskaraz aritzeko babesgune modura osatutako *ariguneak* identifikatu beharko dituzte entitateek Euskaraldian parte hartzeko. Ariguneak bi motatakoak izango dira:

- Barne-ariguneak: Entitateetan ohiko dinamika duten eta kide guztiek gutxienez euskara ulertzen duten taldeak dira. Euskaraldian parte hartzeko, kideen % 80k, gutxienez, ados egon beharko du eta zuzendaritzaren edo arduradunen babesa izango dute 15 egun horietan horrela jarduteko.
- Kanpo-ariguneak: Entitatean herritarrekiko harreman-espazioetan dauden pertsonak osatzen dute kanpo-arigunea, uneoro *belarriprest* edo *ahobizi* bat egongo dela bermatzen bada.

Bestalde, pedagogia soziala egiten jarraituko dugu, eremu gehiagotara zabalduko gara, baita sare sozialetara ere eta lankidetzaren indartzen jarraituko dugu.

Azkenik, bigarren Euskaraldia, Euskal Herri osoko euskaltzaleen mugimendua aktibatuzko, indartzeko eta egonkortzeko ere baliatu nahi dugu, sortutako energia eraldatzailea ez dadin galdu ediziotik ediziora, eta urte guztiko dinamikara eta beste esparru batzuetara ere zabal dadin.

Badator Euskaraldia. Izan zaitetz zu ere, bat gehiago!